

1. Zer da KULTURA BONUA? Kutxazainek ematen dituzten sarrera-txartelen moduko dokumentu bat, establezimendu bakar batean kultura-produktuetan 40 euro kontsumitzeko aukera ematen duena, nahiz eta erosleak txartela bera 25 euro ordaindu. Gainerako 15 euroak Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu, lehiaketa bidez hautaturiko finantza-entitate baten bitartez.

2. Zer eros dezaket BONUAREKIN? Liburuak (literatura, saiakera, poesia eta marrazkigintza...), musika: edozein euskarritan (CD, binilo, DVD...), zinea (DVDak), zuzeneko ikuskizunak (antzerkia, dantza, musika...), museoak: fideltasun-txartelak (“...aren laguna”) Programatik kanpo geratuko dira: papergintzako produktuak; testu-liburuak, liburu profesionalak eta ikasketetakoak; informatika eta elektronikako produktuak; joko eta bideojokoak.

3. Non eros daiteke bonua? BIZKAIA: Telekan. BBKren orotarako kutxazainak. GIPUZKOA: Servikutxan. KUTXA.

ARABA: VITAL KUTXAren web orrialdean www.cajavital.es

4. Zenbat bonua eros daitezke? Bonu bat txartel bakoitzeko, gehienez, ahalik eta eskatzaile gehienek eskaera asetu ahal izateko.

5. Noiz eros daitezke? Abenduaren 14tik 2010eko urtarrilaren 5era arte, edota bonu-hornidura agortu arte.

6. Noiz arte onartuko dira bonuak? Bonuen indarraldia 2009ko abenduaren 14tik 2010eko urtarrilaren 16ra artekoa izango da. Hortik aurrera ez da establezimenduetan onartuko.

7. Establezimendu batean baino gehiagotan erabil dezaket bonu bera? Ez. Bonua establezimendu bakar batean kontsumitu behar da. Erosketa 40 eurotik beherakoa bada, ez da diferentzia esku-dirutan itzuliko. Erosketa 40 eurotik gorakoa bada, falta den alde hori diruz ordainduko da. Edonola ere, establezimenduaren esku egongo da komeni diren erraztasunak ematea erosleari, bonuaren balioa agortzeko, betiere iraungitzeko epea onartuz gero.